

• MATTIN •



Mundua ez da borobila

• FITO RODRIGUEZ •

[EHUKO IRAKASLEA]

Galileok bere garaian kontrakoa esan arren egun gure planetaren itxura ez dela borobila argi dago. Hala eta guztiz, ingelesaren eraginez dudarik gabe, globalizazio garaian gaudela diote gizarte zientzietan adituek (Castells, Giddens etab...). Areago oraindik, batzuen ustez, aipatu globalizazioa ez litzateke gure moderniaosteko gizartearen aldaketak ulertu ahal izateko eredu soilik, baizik eta munduko antolaketa berria definitzeko kontzeptua, zeren giza harremanak sarean elkartzeko borobiltze bidea buruturik egongo litzateke honezkero (Yergin, Stanislaw...). Eric Hobsbawmek famatu zuen mende motza (1917tik 1989ra iraun zuena, nonbait) deituriko haren gizarte eraketa, bada, erabat gaiturik izango genuke egun. Ondorioz, eta teknologia berriaren bidez, denbora errealean informazioa munduko edozein tokitara helerazi ahal izanaz borobildu egingo litzuke planeta osoko gizarte harremanak. Egitura berri honek, gainera, ez luke bakarrik suposatuko merkatu mailan, ekonomia antolaketa, politikaren eraketan etab, informazioa prozesatzeko sistema berri baten ezarpena, giza eta gizartearen esperientzia arruntak (aukera etikoak eta estetikoak...) berrantolatzearen premia baizik.

Munduko berrantolaketa honen aurrean batzuek alde onuragarriak azpimarratzea deliberatu omen dute. Horrela, Tofflerrek dioenez (J. Etxeberriak gure artean), informatizazioaren hedapenak pertsonentzako nahiz kulturentzako demokratizazio gehiago besterik ezingo lukeela ekarri pentsatzen dute. Besteok, berriz, agintea eta ondoriozko pribilegioak gaurkotzearen eta egokitzearen aitzinean gaudela uste dugu, eta honetan, estaturik gabeko

herriak nola kokatzen garen asmatzean datzala egin beharreko lana.

Izan ere, pentsamendu bakarren garaian gogamen askea ekoiztea da garai berrietan eduki dezakegun lanik gaitzena. Mende motzaren hasierako pentsalariak (Gramsci, Weber) intelektuaren amerikanizazioaz ohartu gintuzten. Hau da, espezialismoaren beharra, teoria orokorren zilegitasun eza, gizabanakoaren birbaloratzea gizartearen gainetik, aburuen arinkeria, hedonismo kontsumistak eragindako harremanak, kulturen estandarizazioa etab... globalizazioa deritzaneko sasoi honetan gailendutako joerak, alegia.

Baina fenomeno kulturala izateaz gain, globalizazioaren azpian ekonomia antolaketa berria dago, non finantza bideek industrializazio modernoaren egituraketa desegingo duten, aurreko lan harremanak ere desitxuratuz. Honetan, berriro ere, ezin esan inolako mundializazioa ezarri denik, baizik eta (goian kultura arloan esan dugun bezala) Amerikar Estatu Batuen inperioak bere agintea (ekonomikoa, oraingo honetan) mundu osora zabaltzea lortu duela. Beraz, globalitate garaian bai kulturalki hedaturiko *American way of life* (Gorz, Grignon) baita amerikar beharren arabera ekonomia borobildua ere (Burgi, Golub, Fitoussi) ditugu funtsezko zutabeak. Dagoeneko, bada, moderniak eraikitako gizarte, bere estatu-nazioa, kultura bereiztua eta guzti, bere industrializazio eta merkatu nazionala babesten zuen legeteri propioaz... desagertuta dago (Piore, Sabel).

Dena den, kulturaren estandarizazioak tribalizazio berriak ekarri dituen bezala (Maffesoli) eta ekonomia globalak merkatu txikien sare paraleloak babesteko joera areagotu duen legez (Keohane, Milner) edota

gizarte loturen birrinketak elkartasun berriak sortarazi dituen antzera (ONGen aniztasunari begiratzea besterik ez da behar... Power, Hassard, Pym), aginte politikoaren egungo birmoldaketak estaturik gabeko herriengan zer-nolako eragina edukiko duen argitzea dugu oraingo erronka.

Orain arteko estatu-nazio-hizkuntzaren partez globalitateak munduan zehar kultura estandarizatu zabaldu duela ezin da dudari jarri.

Ekonomikoki, zer esanik ez!, dagoeneko mundializazioak modernaren ekoizpen sistema suntsitu du erabat.

Politikoki, aldiz, afera ezin da horren garden antzeman. Izan ere, mundializazioa (amerikar agintarien interesen arabera ereduen hedapena, hain zuzen) kulturaren eta ekonomian borobilduta egon arren gizarte eraketan, berriz, egiteke daukagu oraingoz. Ezin esan, beraz, globalitate egoera honetan estatuak desagertze bidean dauden paradigma gaiturik direnik (Hobsbawm). Bai, ordea, intelektuaren arloan bezala edo-ta ekonomian gertatutakoaren antzera, amerikar ereduak egitear dagoen munduko politika berrantolaketa eragingo duela era sendo batez. Ildo honetatik gomen-dagarria litzateke gogoratzea Estatu Batuen Konstituzioaren 10. Emen-dakina, non federazioan parte hartzen duten estatu txikiak delegatu nahi izan ez duten eskumenak errespetatzeko aitortza egiten den.

Munduaren berrantolaketa berri ezin da agintearen aurrean itsuturik geratu. Globalizazioa deritzana inperialismo amerikarraren aurpegi berria dugu. Gure eguneko bizitzan ondorio zuzenak dituen. Onerako zein txarrerako. Baina mundua ez da borobila...

... BIXENTE SERRANO IZKO

Zina



Aitortu behar dut, Múgica jauna, hizkuntz politikari buruzko zure ekarpen zoragarriak itsuturik utzi eta nire Dama maskorako bidean zalditik lurrera bota nautela. Zure argiari jarraituko diot, itsutsuan, aurrerantzean. Zin egiten dut.

Zin egiten dut Nafarroako euskararen arazoari ikuspegi etnizista batetik so egiten diodala, komunitate tradizional baten, guttiengo etniko urrikalgarri baten arazo bezala.

Zin egiten dut, hizkuntz eskubiderik ez diodala aitortuko ama-sabeletik euskaraz elikatu ez direnei, hiritarren borondatea, euren jaiotzezko errealitatearen aurkakoa, irizpidetzat joko bagenu, ordena naturalaren kalte zabala eta libertinajea baizik ekarriko ez genukeelakoan.

Zin egiten dut, progresoen izenean, *darwinismo* kulturalak eragiten duen hizkuntz mailaketa onartuko dudala, hau da, hizkuntza nagusiaren erabilera soziala eta bertzearen ezagumendu kultural-folklorikoa gehienez, turismo etnologikoari interesa dakioken heinean.

Zin egiten dut Noain, Mutilba, Kaparrotzu edo Sartagudara ez naizela sekula santan hurbilduko, Zisjordaniako asentamenduen arazoak Nafarroan ez birlantatzeko.

Zin egiten dut Elizaren *O, felix ignorantia* abestia nire ereserki bihurtuko dudala, elebitasuna eta edozein jakinduria oztopo galantak dirrelakoan zoriontsu ibiltzeko. Behin eta berriz oroituko naiz askoz zoriontsuagoa nintzela nire lehen haurtzaroan.

Zin egiten dut Lan Eskaintza Publikoko epaimahai batean sartzen banaute zorrotz-morrotz neurtuko dudala euskaldunen aprobata kopurua, funtzionario abertzaleak nafar gizarteak baino gehiago inolaz ere izan ez daitezkeen. McCarthy-ren erretratu dotorea jarriko dut probaretoan, inork ez diezaion bere buruari engaina.

Azkenik, nire burua eskeintzen ausartzen naiz, Múgica jauna, zurekin batera Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza talde berriaren sartzeko, bion eskarmenduak eta zure gidaritzat txit zorrotzak baliagarriak oso izan daitezkeelakoan errotik mozteko ortze-mugan susma ditzakegun enfrentamendu bortitx-bortitzen arriskua.

...kornerra

MIKEL ELORZA

Sagar heldua

■ Telebista ezak eta Hollywoodek eman zion garrantzi eskasak 2. mailan utzi zuten Koreako Gerra. *MASH* ederra, Marilynren bisita eta ale solte batzuk badira, baina oro har itzal gutxi gatazka izan da. Ipar Korean pairatu duten goseteak ere ez du gure arreta piztu —buruzagi kriptokomunistek lagunduta—. Gainera, urrutiko dago. Aurrerantzean, ordea, izan genezake albisterik, ongiak gaizkia mendean hartuko duela baitirudi. Txinak Maoren argazkia kendu ez baina dolarraren ikurra ere goiburu jartzea erabaki zuenetik, egia esan, ez zen eroso Ipar Korearen egoera. Eta presio itzela Daewoo, Hyundai eta besteek egindakoa —baita Joko Olinpiko apolitikoez ere, ez dezagun ahantzi—. Sagarra heldua dago eta, buruzagiek hala iriztean (Koreako eta Wall Streetekoek), herritarrak *libre* izanen dira ezereza utzi eta batek daki zein miseria erdiesteko.